

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAK ELE APLIKATZEAGATIK 2018AN EGINDAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN ESLEIPENAK

Iragarkia

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak 2018ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, hurrengo diru-laguntzak emateko deialdia onartu zuen:

Mankomunitateko kide diren udalei, 2018. urtean Eragin Linguistikoaren Ebaluaziorako tresna aplikatzeko diru-laguntzak.

AURREKARIAK

1. Diru-laguntzaren helburua

2018ko abenduaren 3an, BAOan argitaratutako oinarrien helburuak hauek ziren:

- a) Udalek onartzen dituzten udalerriko plan orokorretan ELE tresna aplikatzea, eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea.
- b) Udalek onartzen dituzten plan partziealei ELE tresna aplikatzea, eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea.
- c) Udalerriko egoera soziolinguistikoa alda dezaketen proiektuetan ELE tresna aplikatzea eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea, proiektuaren baimena udalaren esku dagoen kasuetan.

2. Diru-laguntzen onuradunak

Diru-laguntza hauek jaso ahalko dituzte, Mankomunitateko kide izan eta mankomunitateari ordaindu beharreko kuota egunean duten udalek.

JASO DIREN ESKAERAK

Diru-laguntza hauen iragarkia BAOan argitaratu zenetik, honako udal hauek egin dute laguntza jasotzeko eskaria, oinarriak zehazten zuten epean eta lekuan:

- Izurtzako Udala.
- Bakioko Udala.

DIRU-LAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK

Hauexek dira, diru-laguntzak emateko oinarriek zehazten zituzten irizpideak:

1. Eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteak udalari ekarri dion gastuaren proportzionala izango da, eskatzaileen artean.
2. Diru-laguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da.

AURREKONTU PARTIDA

Diru-laguntzak ondorengo atalean oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atalak gehienezko kopuru hau izango du: 8.000 euro.

ELE azterketak egiteko diru-laguntzak partida: 8.000 euro

Partida: 409.335.00

EBAZPEN PROPOSAMENERAKO OINARRIAK

Eskaera Mankomunitateko kide diren bi udalek bakarrik eskatu duela kontuan hartuta, eta diru-laguntza eskaera egiteko bete behar ziren baldintzak betetzen dituztela kontuan izanda,

Proposamena da: Udalek eskatzen duten kopurua bere osotasunean ematea. Gainera, bi Udalek jasoko duten diru-kopuruaren batura diru-laguntza partidan zegoen kopurua baino murrizagoa da.

Izurtzako Udala: 2.554,31 euro (BEZ barne)

Bakioko Udala: 2.178 euro (BEZ barne)

Guztira diru-laguntzetan 4.732,31 euro banatuko ditu UEMAk, beraz.

ERREKURTSOAK

Esleipenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio esleipen hau UEMAREN webgunean argitaratzen den egunetik (2019ko urtarrilaren 7tik) kontatzen hasita 15 eguneko epean.

Azpeitian, 2018ko abenduaren 31n

Josu Labaka Zurriarrain

UEMAko lehendakaria



Miren Segurola Larrañaga

UEMAko koordinatzailea

